

Urtetik urterat, Sagarnoaren ekoizpena indartzen eta emendatzen ari da. Aurten ere %10eko emendaketa bat kondatu behar da Bidasoaren bi aldetan. Liferentzia hunekin, 12 miliun pinta pizatzen badu hego aldeko sagarnoak, iparraldekoak 100 000 pintetarat heltzen ari da orainokoan, Txopinondo, Ezfigar, Aldakuria eta aurten Sagarmuin Baionako sagarnotegiaren lehen ekoizpenarekin. Bernikitan Aturi bazterrean plantatua den sagarnotegi hau, Etxeberria Aztigarragako sagarnoarekin itzulikatzen bazen ere orain arte, lehen aldikotz bere ekoizpena segurtatu du. Ongi etorri sagarno egilen artean.

Bestela urte huntan ere zonbait sagarno egilek batez ere Gipuzkoan lan egin dute kalitatearen

Sagarnoaren ekoizpena

aldetik ISO9001 normetan sartzeko, Sagarteka, Aztigarragan plantatua den kontseilu enpresaren gerizan. Kalitate norma horrek urtetik urterat finkatzen du sagarno egile bakoitzaren egin moldeak, urte guziz ber sagarnoaren egiteko gisan. Bestalde zonbait sagarno egilek beren botoilaren etiketan emaiten hasiak dira beren ekoizpenarentzat baliatu sagarrak beren kantitateekin. Xantza bat gehiago konsumidoreentzat, kalitatezko produkto baten garantiarekin baterat, urte batetik besterat, ber sagarnoaren aurkitzeko segurtamena baituke. ●